

GOIERRIKO ERROLDA DATUEN AZTERKETA 2010

- 1) 2010eko urtarrilak 1ean, Goierriko bailara osatzen duten 18 udalerrietan, (Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia, Zegama eta Zerain), **beste herrialde batzuetako 3.982 pertsona erroldatuta daude, biztanleria guztiaren % 9,22**. Ehuneko hau Gipuzkoa osoan (%5,8) eta Euskal Autonomi Erkidegoan (%6,1) daudenak baino altuagoa da eta Estatu mailan dagoenarekin konparatuz (%12) baxuagoa da.
- 2) Iaztik hona, **Goierriko 11 udalerrietan beste lurraldeetatik etorritakoen portzentaje hazkundera** eman den bitartean (Altzaga: %0,7; Arama: %4,72; Ataun: %0,39; Beasain: %0,72; Itsasondo: %1,56; Olaberria: %0,24; Ordizia: %0,22; Ormaiztegi: %0,73; Segura: %1,37; Zegama: %0,48; Zerain: %0,81), **6 udalerritan beherakada eman da** (Gabiria: %0,63; Gaintza: %1,54; Idiazabal: %1,26; Lazkao: %0,02; Legorreta: %0,16; Zaldibia: %0,48) eta **udalerrri bat berdin** mantendu da (Mutiloa: %0,0).
- 3) Beste lurralde batzuetatik etorritako pertsonak bizitzera joan diren **udalerrri esanguratsuenak** hauek izan dira: **Ordizia** (1.253 pertsona; %12,82), **Beasain** (1.402 pertsona; %10,22), **Lazkao** (350 pertsona; %6,54), **Zegama** (151 pertsona; %9,72), **Zaldibia** (132 pertsona; %8,71), **Legorreta** (120 pertsona; %8,01), **Idiazabal** (118 pertsona; %5,19), **Ormaiztegi** (117 pertsona; %8,82) eta **Segura** (106 pertsona; %7,25).
- 4) **Azken bost urtetan** beste lurraldeetatik etorritako pertsonen **eboluzioa** + %5,77koa izan da (2005ean %3,45 eta 2010ean %9,22). Epe honetan saltorik esanguratsuenak 2007tik (%5,52) 2008ra (8,14) izan zen.
- 5) Atzerriko biztanleen artean, **Europar Batasuna edo Europako Esparru Ekonomikotik** etorri direnak **%59,4a** osatzen dute (2.366 lagun). **Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetatik** etorri direnak berriz **%40,6a** (1.616 lagun). **Gehien ageri diren bost nazionalitateak** honakoak dira: Errumania (1.757), Maroko (430), Portugal (408), Ekuador (261) eta Argentina (109). Azken urte honetan **hazkunde** nabarmenena hiru lurraldetan eman da: Errumanian (+85), Marokon (+55) eta Pakistan (+21). Gehien **murritu** diren taldeak Kolonbia (-16) eta Algeria (-12) izan dira.
- 6) Beste lurraldeetatik etorritako pertsonen artean, **%42,45a emakumeak dira eta %57,55a gizonezkoak**. 2009ko datuekin konparatuz, esan daiteke beste lurraldeetatik etorritako emakumeen kopurua pixka bat igo egin dela (2009: %39,43) eta gizonezkoena jaitsi (2009: %60,57). Gizonezkoen jaitsiera, Europar Batasuneko gizon gutxiago egotean eman da. Emakumeen igoera berriz, Europar Batasunetik zein hemendik kanpoko emakumeen artean eman da.
- 7) Beste lurraldeetatik etorritako pertsonen artean, **% 82,55 16-64 urte bitartekoak dira; %16,5 0-15 urtekoak eta %0,95 65 urte bitartekoak**. Beraz, esan daiteke beste lurraldeetatik etorritako pertsona gehienak lan egiteko adinean daudela eta adin txikikoak beren kargu hartzen doazela, pixkanaka familia izaera hartzen ari direlarik.